

2018

*Zure etxea,
zure kabia*

2. zenbakia



• UROLA KOSTAKO •

HITZA



KIMU BAT
GARDEN

Animaliontzako denda berria



Urrestilla bidea, z/g . AZPEITIA

Gure etxeko lagun iletsu, lumadun eta
ezkatadunentzako eskaintza zabala!

#GUZTIOKANIMALI

Etxea barrutik eta kanpotik jantziz

Udaberriko lehen eguzki printzen gozotasuna eta argitasuna iritsi da gure txokoetara. Etxe barruko zein kanpoko espazio horiek gozo janzteko eta eraberritzeko garai egokia da. Horretarako, Urola Kosta eskualdeko herrietan etxebizitza arloan, eraberritzean eta dekorazioan adituak diren profesionalen eskaintza zabala da. Gertuko profesionalen eskutik asko dago jasotzeko: konfiantza, aholkua, esperientzia, gertuko tratua, ideia berriak, obren jarraipena... Etxebizitza nahiz egunerokoan erabiltzen diren beste hainbat espazio atontzeko, janzteko eta berritzeko inguruko eskaintzaren berri duzu esku artean. Lehen zenbakia otsailaren bukaeran jasoko zenuen, esku artean duzun hau da bigarrena.



• UROLA KOSTAKO •

HITZA

Argitaratzailea:

UROLA KOSTAKO HEDABIDEAK

Zuzendaria:

Nerea Uranga

Kudeatzailea:

Uxua Ostolaza Egaña

Publizitatea:

Ainhoa Subinas

Idoia Aginagalde

Felix Aizpurua

Testuak:

Aitziber Arzallus

Diseinua:

Ane Azkue

Helbidea:

Araba kalea, 25 behe

ZARAUTZ

943-89 00 17

urolakosta@hitza.eus

www.urolakosta.hitza.eus



1. zenbakia - Otsaila



2. zenbakia - Martxoa

Irudi berritua eta 20tik gora urteko eskarmentua, bezeroen zerbitzura

Aurrerantzean, Doimo Cucine fabrikatzaile italiarraren sukaldeak merkaturatuko ditu. Publiko zabalagoarengana iritsi nahi du, poltsiko guztietarako aukerak eskainita.

Hasiberrien ilusioarekin eta bi hamarkadatik gorako esperientziak ematen duen ziurtasunarekin, Bastida Sukaldeak enpresak garai berri bat hasi du. Beste irudi bat, beste marka bat eta beste eskaintza bat ditu; baina, oinarrian eta lan egiteko moduan, lehengo



bera izaten jarraitzen du. Orain arte bereizgarri izan ditu bezeroei kalitatea, gertuko tratua eta pertsonalizatzeko aukera eskaintzea, eta aurrerantzean ere halaxe izango ditu.

«Urte askoan fabrikatzaile batekin lan egin dugu, eta haren itxiera izan da aldaketak egitera bultzatu gaituena. Baina, uste dugu, hoberako izan direla egin ditugun berrikuntza guztiak», adierazi du Ione Bastidak, Ramon Bastida enpresaren sortzailearen alabak. Hain zuzen, Ione bera da berrikuntzetako beste bat, aurrerantzean aitarekin

eskuz esku ariko baita, familiako negozioak segida izan dezala bermatzeko. Azken hilabeteotan erabaki garrantzitsu asko hartu behar izan dituzten arren, prozesua «lasaitasunez» eraman dute aurrera. «Horretan asko lagundu digu merkatuan gure lekua izateak». Fabrikatzaile ugari zeuden eurekin lan egiteko prest, eta denen eskaintzak aztertu dituztela azaldu du Ionek. «Etorri zaizkigun marka guztiei hartu diegu sukaldereen bat, denak probatu ditugu, eta, azkenean, onena iruditu zaiguna aukeratu dugu, gure bezeroen beharretara ondoen egokitzen dena». Doimo Cucine da Bastida Sukaldeak enpresarentzat ariko den fabrikatzaile berria.

Diseinuan, urrats bat aurretik

Gruppo Doimo barneen dekorazioan Italiako konpainiarik garrantzitsuenetakoa da, eta Doimo Cucine talde horretako parte da, sukaldeei dagokien adarra, hain zuzen. Ia 25 urte daramatza sukaldeak egiten. «Italian izan gara fabrika ikusten, eta asko gustatu zaigu. Konturatu gara, joerei dagokienean, Doimo beti doala urrats bat aurretik». Eta diseinuan bakarrik ez, marka berriarekin, kalitatean eta eskaintzan ere





irabazi egin dutela uste du Ionek. «Orain publiko zabalagoarengana iritsi gaitezke, poltsiko guztietarako aukerak dituelako. Gama altuko sukaldeak eskaintzen jarraituko dugu, baina eskuragarriagoak ere eskainiko ditugu». Gainera, markaren eksklusibitatea dute; Gipuzkoan bakarrak dira Doimo Cuisine sukaldeak saltzen.

Marka berriak, ezinbestean, irudi berria eman dio enpresari, «irudi freskoa-goa», Ioneren hitzetan. Horren adibide dira Azpeitian, Bergaran eta Zarautzen dituzten dendak. «Hiru dendetako erakusketak berritu ditugu eta hiru dendak itxura zeharo aldatu da».

Aldatu ez dena enpresaren beraren funtsa da. Lan egiteko modurari eta lan taldeari eutsi egingo diote, 20tik gora urteko ibilbidean, emaitza onak eman diezkielako. «Gure helburua da bezero bakoitzari bere ametsetako sukaldea eskaintzea, eta gure bitarteko guztiak horretara jartzen ditugu. Aukerak dituzten materialak erakutsi eta merkatuan dauden joerak azaltzen dizkiegu, bezero bakoitzak sukaldea bere nortasunaren eta gustuen arabera egokitu dezan». Etxeko muntatzaileak izateak ere asko laguntzen die bezeroei gertuko tratua emateko ahalegin horretan. «Bezeroek jakin dezatela euren zerbitzura gaudela, edozein zalantza argitu edo edozein arazo konpontzeko prest».

 **bastida**
sukaldeak

AZPEITIA	BERGARA	ZARAUTZ
Perez Arregi,9	Ibargarai 36-38	Elizaurre,3
943-15 05 10	943-76 70 58	943-89 49 99

«Espazio bat osasuntsua dela antzeman egiten da»



Barne arkitekturako proiektuak garatzea dute lanbide Maite Santosek eta Itziar Zabalok. Baina, ez dira dekoratzaile hutsek. Haiek sortzen dituzten espazioak, funtzionalak eta diseinuzkoak izateaz gain, osasuntsuak eta efizienteak ere badira. Gazteak izanagatik, prestakuntza eta esperientziadunak dira biak ala biak. Aurki sei urte beteko ditu Azpeitian duten Arkioireka estudioak.

Zer egiten duzue Arkioirekan?

Gure lana da, batez ere, etxebizitzaren eta lokal komertzialen barne diseinuak eta eraberritzeak egitea. Baina, sortzen ditugun espazioak, funtzionalak eta diseinuzkoak izateaz gain, han biziko direnentzat ahalik eta osasuntsuenak eta efizienteenak izaten saiatzen gara.

Horretarako, Feng Shui Tradizionaleko, bioeraikuntzako eta geobiologiako irizpideak erabiltzen ditugu.

Etxebizitza batek nola eragin dezake han bizi direnen osasunean?

Askotan kexatzen gara gure ingurunea, kanpoaldea, kutsatuta dagoelako, baina agian ez dakiguna da barrualdeak kanpoaldea baino hiru aldiz kutsatuago daudela. Beraz, etxe barneko kutsadura murrizten badugu, osasunari lotutako hainbat aspektutan hobekuntza izango dugu.

Etxe osasuntsu bat lortzeko, zer hartzen duzue kontuan?

Batetik, etxebizitzaren kokapenaren azterketa geobiologikoa egiten dugu; eta bestetik, saiateren gara bermatzen etxebizitza barruan kutsadura elektriko eta elektromagnetikorik ez dagoela; eraikuntza sistemak eta materialak zentzuz aukeratu direla; energia eraginkortasunez erabiltzen dela; ekologia; materialen traspiragarritasuna; etxebizitza barruko airearen kalitatea ona dela; argi naturala sartzen dela; argiztapen artifiziala ondo aukeratu dela; etab.

Zer da etxebizitza efiziente bat?

Zentzuz eraikitako etxebizitza bat. Etxebizitza efiziente edota eraginkor batek, barneko erosotasuna modu naturalean lortzeko, ahalik eta ondoen aprobetxatzen ditu tokian tokiko baliabide klimatikoak. Horretarako, ahalik eta gehien murrizten ditu energia eskaria eta CO₂ isuriak, eta lehentasuna ematen die energia berriztagarriei.

Zerk bultzatu zintuzten Arkioireka sortzera?

Biok barne espazioen diseinatzaileak gara, eta, 2007an, beste batzuentzat la-



nean ari ginela, biok sentitu genuen gure ezagutzak handitzeko beharra. Maitek, barneen diseinuan eta espazioen eta pertsonen energiak fusionatzeko aukeretan sinisten zuelako, Feng Shui Tradizionala ikasteari ekin zion, Bartzelonan. Itziar, berriz, aspektu teknikoan sakontzeko, Arkitektura Teknikoko ikasketak egiten hasi zen, baita ere Bartzelonan. Urte haietan, biok izan genuen elkarren ikasketa prozesuaren berri, eta biok sentitu genuen beharra bi aldeak uztartzeko. Orduan jaio zen Arkioireka sortzeko proiektua.

Ze zerbitzu eskaintzen dituzue?

Etxebizitzaren eta lokal komertzialen barneak diseinatzeko proiektuak egiten ditugu, obra berrietarako nahiz eraberritzeetarako; obrak zuzentzen ditugu; gremioak koordinatu; altzari eta osagarrietan dekorazio aholkularitza ematen dugu; Feng Shui Tradizionalean oinarritutako azterketak egiten ditugu; geobiologiako azterketak ere bai; lokal komertzialak zabaltzeko jardura proiektuak lantzen ditugu; etab. Azken finean, espazio itxi bat sortzeko edota eraberritzeko beharrezkoak diren zerbitzu guztiak ematen ditugu.

Nola lan egiten duzue?

Dena neurrira egiten dugu, dena izaten da pertsonalizatua. Beti esaten diogu

bezeroari eurak direla han bizi behar dutenak, ez gu, eta eurei buruzko zenbat eta informazio gehiago izan —nola-koa den haien egunerokotasuna, zeintzuk diren haien beharrak, etab.—, orduan eta proposamen egokituagoa landu ahalko dugula. Egia da bezeroek konfiantza eta lanerako askatasuna ematen dizkigutela, baina haiek dira erabakiak hartzen dituztenak, haiek direlako protagonistak, han bizi edo lan egin behar dutenak.

Zer material erabiltzen dituzue?

Espazio bat eraiki edo dekoratzera-koan, gure helburu nagusia da oreka lortzea erabiltzen ditugun material natural eta ez naturalen artean. Joera egon da espazio oso artifizialak sortzeko, horrek dakartzan arazoak kontuan hartu gabe; adibidez: hezetasunak, airearen kalitate txarra, elektrizitate estatikoa, etab. Oreka hori lortzeko, kasuan kasuko, saiatzen gara erabiltzen material transpiragarriak, margo mineralak, instalazio elektriko biokonpatibreak, isolamendu naturalak, egurra, zeramika, kotoia, lihoa, artilea, etab. Horiek dira gure proiektuetan proposatzen ditugun materialetako batzuk.

Hasieran estudioa ireki zenuten eta



beranduago Liho Ta Zura denda. Zer-gatik?

Estudioa bakarrik genuenean, ikusten genuen gure lanaren azken fasera iristen ginenean, alegia, etxebizitza bat jantzi behar genuenean, asko kostatzen zitzaigula hemengo dendetan guk nahi eta behar genituen materialak lortzea. Kanpoko dendetara jo behar izaten genuen, baina sekulako lana zen. Eta pentsatu genuen ondo egongo zela hutsune hori beteko zigun denda bat izatea. Hala sortu genuen Liho ta Zura Etxeko Osagarriak denda.

Dendak balio izan al dizue bezeroengana hurbiltzeko?

Egia da denda badela gure lanaren erakusleaho bat eta neurri batean herritarrengana gerturatzeko balio digula, dendara sartzen denak gure lanaren berri izan dezakeelako.

Zer saltzen duzue dendan?

Hemen daukaguna da gu maitemintzen gaituena: etxeko edozein espazio —egongelak, logelak, bainugelak, sukaldeak, jubenilak— janzteko altzariak, argiztapeneko elementuak, paretako paperak, margo mineralak, oihaletak, alfombra, kuxinak, mantak, zera begetalezko kandelak, zeramika, kristaleria eta beste hainbat osagarri txiki.


Zer aholku emango zeniokete etxe osasuntsua izan nahi duenari?

Etxe bakoitza mundu bat da, ezaugarri eta behar propioekin, eta, horregatik, azterketak pertsonalizatua behar du izan. Garrantzitsua da, norberaren osasunarekin egiten dugun moduan, etxearen osasunaz ari garenean ere espezializatutako profesional baten-gana jotzea, etxeak dituen eskaerei behar bezala erantzuteko.



**BARNE DISEINU ETA
ARKITEKTURA OSASUNTSUA**
Maite Santos Goenaga
Itziar Zabalo Narbaiza

Foru Ibilbidea, 5 · AZPEITIA
943-08 36 79
www.arkioreka.com



LED argiak: garbienak, iraunkorrenak, errentagarrienak

EBk, aurrena, bonbilla arruntak galarazi zituen; eta, aurten, gauza bera egingo du halogenoekin ere. LED argiek eta kontsumo txikiko bonbillek argituko dute etorkizuna.

Sabaitik zintzilikatutako lanparak, paretakoak, gau mahaiakoak, zutik egoten direnak... Argiei dagokie etxebizitza batean kontsumitzen den energiaren laurdena inguru. Eta kontsumo hori handiagoa edo txikiagoa izango da, erabiltzen ditugun bonbillen arabera. Merkatuan, nagusiki, hiru motatako bonbillak topa ditzakegu: halogenoak, kontsumo txikikoak eta LED argiak. Izan ere, urteak dira, energia eraginkortasunaren izenean, Europako Batasunak bonbilla arruntak debekatu zituela. «Oraindik dendetan eros daitezke, baina biltegietan zeudenak dira; fabrikatzea, berez, galarazita dago», dio Azpeitiko Aranburu Argi Lanak enpresako Arantxa Aranburuk. Eta, aurki, gauza bera egingo du halogenoekin ere.


Horrenbestez, kontsumo txikiko bonbillak eta LED argiak bakarrik geratuko dira merkatuan. Baina, zeintzuk dira bietan onenak?

Kontsumo txikikoek, ohiko bonbillek baino bost aldiz gutxiago kontsumitzen dute, eta 15.000 orduko iraupena dute, luzera, %80 merkeago irteten dira. Oztopo bat dute: denbora behar dutela potentzia gorenara harrapatzeko.

LED argiek, oster, 70.000 orduko iraupena dute, bonbilla arruntek baino 50 aldiz handiagoa, eta askoz eraginkorragoak dira: ohiko bonbillek 40 watt behar badituzte, LED-ek nahikoa ditzute 3 watt. Izan ere, kontsumitzen duten energiaren %98 argi bihurtzen dute, eta %2 besterik ez bero. Ohiko bonbillek, aldiz, kontsumitzen duten energiaren erdia galtzen dute.

LED-ak, eraginkorrenak ez ezik, garbienak ere badira, ez baitute osagai toxikorik. Gainontzekoek bai, kantitate txikian bada ere, merkurioa izaten dute, ingurumenarentzat oso kaltegarria den elementua bera. Dena dela, LED-ek ere badituzte degradagarriak ez diren zenbait osagai kimiko eta elektroniko.

LED argien oztopo nagusia prezioa da, erosteko orduan ohiko bonbillek halako hiru eta kontsumo txikikoen bikotza inguru balio dutelako. Luzera, ordea, askoz errentagarriagoak dira.



ARANBURU

ARGILANAK KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA

Argi instalazio orokorrak
Antena telebista instalazioak

Iñaki: 696 98 79 98 ■ 608 77 53 29

argi - lanak



Atxubiaga, 5 ■ Landeta Auzoa ■ 943-15 05 77 (tailerra) ■ 943-81 19 55 (etxea) ■ **AZPEITIA** ■ argilanak@hotmail.com



ZELAI-TXIKI
zurgindegia

35
urtetik gorako
esperientzia

Kalitate
altuko
egurrez eta
melaminaz
egindako
altzariak

logelak
armairuak
egongelak
bainuak
sukaldeak



Altzari
modernoaren
eta tradizionalaren
artisauak



Errota, 13
Iraetako industrialdea
ZESTOA
www.muebleszelaitxiki.com
info@muebleszelaitxiki.com
943-14 75 32



Bisitatu
gure erakusketa
eta eskatu zure
aurrekontua

Binilozko alfonbrak, urte guztirako, etxe guztirako

Etxeari goxotasuna eta nortasuna emateaz gain, garbiak, garbitzeko errazak eta oso iraunkorrak dira, eta koloreetan eta diseinuetan ez dute mugarik. Zarauzko Artilan dendan aukera zabala dute.

Etxeari berotasuna eta goxotasuna emateko, alfonbrak jartzea da aukeretako bat. Baina haiek txukun mantentzea ez da erraza, batez ere etxean haurrak eta animaliak bizi direnean. Aise hartzen dute hautsa eta ohartzerako itsastena zaie zikinkeria; baina beste kontu bat da haiek garbitzea. Nork ez du alfonbraren bat kendu behar izan, garbitu ezin zuelako?

Hori bukatu da: binilozko alfonbrak dira soluzioa. Ohikoak baino askoz arinagoak dira, eta hautsik hartzen ez dutenez, askoz garbiagoak ere bai. Astindu beharrik ere ez duzu izango, lanbasa pasa eta berria bezala gertuko delako. Ez urak, ez xaboiak, ezta olio beroak ere, ezerk ez ditu kaltetzen.



Horregatik, primerakoak dira sukaldean jartzeko. Eta baita haurren logelari jartzeko ere, edo egongelan edo etxeko beste edozein lekutan.

Eta etxean bakarrik ez, baita bulegoan edo lantokian ere, oso iraunkorrak direnez, mugimendu handiko lekuetarako ere aukera ezin hobea baitira. Eta barrualdean bezala, kanpoaldean ere erabil daitezke, nola udako egun eguzkitsu batean, hala neguko hotzik handienean. Kolore eta diseinuei

dagokienean, berriz, ez dute mugarik. Areago, pertsonalizatzeko aukera ematen dute.

Zarauzko Artilan dendan aukera zabala dute. «Marka, prezio eta estilo askotakoak ditugu, gure bezeroek asko eskatzen dituztelako; arrakasta handia dute», dio Igor Zubeldia jabeak. «Merkeak ez dira, baina bai praktikoak eta oso iraunkorrak. Horregatik, luzera begira, merezi du binilozko alfonbra bat erostek».



artilan

a l f o n b r a k

ARTILAN BERRIA
SORTZERA GOAZ...



LEKU
ALDAKETAGATIK
LIKIDAZIOA!!



Etorri ikustera!

Hegoalde, 8 (Maxi-Eroski)
ZARAUZ
943-13 10 59



50 urtetik gorako eraikinei, azterketa



Borja Agirresarobe

Ibilgailuek nola, etxebizitza-eraikinek ere azterketa gainditu behar dute egoera onean daudela baieztatzeko. Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, EIT Eraikinen Ikuskaritza Teknikoa egiteko betebeharra dute 50 urtetik gorako etxeek eta laguntza publikoak eskatu nahi dituztenek. Eusko Jaurlaritzaren arabera, eraikin guztiek araudi horretara egokituta egon beharko lukete aurtengo ekainaren 27a baino lehen. Borja Agirresarobe Zarauzko XS Arkitektura estudioaren arduradunarekin hitz egin dugu, araudiaren inguruko hainbat zalantza argitzeko.

Zer da EIT?

Etxebizitza-eraikinei egiten zaien az-

terketa da, haien egoera zein den jakiteko. Hiru puntu aztertzen dira: eraikinaren egoera eta kontserbazioa, irisgarritasuna eta eraikinaren kalifikazio energetikoa. Ikuskariak txosten tekniko bat egiten du hautematen dituen arazoekin eta haiek konpontzeko jarraibideekin.

Zer eraikinek egin behar dute?

Bi arrazoi daude EIT egin behar izateko: lehenengoa da, 2018ko ekainaren 27an 50 urte edo gehiago izatea; eta bigarrena da, eraikinak zaharberritzeko, energia eraginkortasuna hobetzeko eta irisgarritasuna bermatzeko obrak direla eta, diru laguntza publikoak eskatu nahi izatea.

Nork egiten du?

Arkitektoak eta aparejadoreak dira eraikin bati ikuskaritza egin diezaioketen profesional bakarrak. Etxearen jabeak erabakiko du noren esku utzi lan hori —komunitatea bada, denen artean erabaki behar dute—.

Zehazki, zer aztertzen dute?

Hiru atal izaten ditu txostenak. Segurtasunari buruzkoa da nagusia; egitura, fatxada, estalkia eta ur sarea —saneamendua eta hornidura— aztertzen ditu teknikariak, pitzadurarik, hezetasunik, eroritako elementurik edota deformazioziorik baden jakiteko, horiek direlako arazoak daudenaren seinale argienak. Horrekin batera aztertzen ditu irisgarritasuna —sarbideak egoki dauden— eta eraginkortasun energetikoa —hotz-beroa egoki baliatzen ote duen—.

Zer ondorio ditu?

Eraikinaren ikuskaritza egin eta gero, ikuskariak konpondu beharreko arazoak edo kalteak txostenean azalduko

ditu, eta kalte horiei letik 5erako maila bat emango die: 1. mailakoak, 24 orduan konpondu beharko dira; 2. mailakoak, hiru hilabeteetan; eta 3. mailakoak, urtebeteetan. 1, 2 eta 3. mailakoak, derrigorrean konpondu beharko dira; aldiz, 4 eta 5. mailakoek, ez dute derrigortasunik.

Nork kudeatzen du?

Hirigintza eskumenak dituztenez, udalek kontrolatzen dute azterketak egoki egiten direla. Txostenean akatsak antzemanaz gero, etxejabeek konpondu beharko dituzte, eta, ondoren, Konponketen Ziurtagiria udaletxean aurkeztu beharko dute, konponketak egin dituztela baieztatzeko.

Nora doaz datu horiek?

Udalek Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari igortzen diote informazioa, erregistro bakar batean jasotzeko. www.euskoregite.com webgunean, etxearen helbidea sartuta, jakin daiteke zenbat urte dituen eta txostenean zer emaitza duen.

Zenbat urterako balio du?

Hamar urterako. Epe hori igarota, berriro egin beharko da ikuskaritza.

Zenbat kostatzen da?

Ez du prezio finko ofizialik; teknikari bakoitzak erabakitzen du zenbat kobratuko duen. Eraikinaren tamainaren eta etxebizitza kopuruaren arabera egiten dira aurrekontuak.

Zer ondorio izan ditzake ez egiteak?

Hirigintza alorreko arau hauste gisa hartuko da. Norbaitek ez badu ikuskaritza egiten, udalak aukera izango du bere kabuz egiteko eta horren faktura jabeari pasatzeko.



herrikobarra 11, behea • ZARAUTZ • 943-13 43 58



ERREHABILITAZIOA

txostenak

ITE-ak

igogailuak

fatxaden errehabilitazio energetikoak
aholkularitza teknikoa komunitateentzat

www.xsarkitektura.com



BIYONA

BARNE DISEINUA

PROIEKTATU KOORDINATU BURUTU



ALTZARI ETA ETXEKO OSAGARRIAK

DEKORAZIOA

PROIEKTU PERTSONALIZATUAK

AZKOITIA
943-85 21 10

ZARAUTZ
943-13 50 16

ZUMAIA
943-14 34 43



WWW.BIYONA.NET

Kalitatezko toldo bat, bizi guztirako inbertsioa

Babes on bat erosteko orduan, haren egitura, ehuna eta motorra dira kontuan izan beharreko hiru elementuak. Kolore eta diseinuetan, aukera zabala dago merkatuan.

Bukatzearen den negu hotz eta euritsuaren ostean, udaberriko lehen eguzki printzen zain gaude gehienok. Baina,

aurki hasiko gara gerizpe bila ere, esaterak ondo dioen moduan, itzala delako eguzkiaren onena. Eta non hobeto, toldo eder baten azpian baino? Etxeko balkoian, leihoan edota taberna bateko terrazan, baina beti babes on baten azpian. Ordea, nola jakin toldo bat ona dela? Zeri erreparatu behar diogu?

Batez ere, hiru gauza hartu beharko ditugu kontuan: egitura, ehuna eta motorra. Egitura da toldo bati haizearekiko erresistentzia ematen dion elementua. Hortaz, ziurtatu behar genuke Europar fabrikatutako materialekin eginda dagoela, CE ziurtagiria duela, eta metal eta aluminioen kalitatea bermatzen duen Qualicoat ziurtagiria ere baduela. Ehunak, berriz, erabat babestu beharko gaitu eguzki izpiengandik, toldoaren

azpian lasai ibil gaitezen. Akabera bereziak dituzten ehunak boladan daude, esaterako, orbanen eta onddoen kontrakoak. Eta diseinuari dagokionean, kolore eta estilo aukera zabala dago merkatuan.

Azkenik, motorra dago, teknologikoki toldoaren parterik aurreratuena. Nahi izatera, toldoa sakelakotik konfiguratzeko aukera ere izango genuke.

Zarauzko Etxe.Teknik-en adituak dira, urteak daramatzatelako etxe eta lokalatan haiek jartzen eta konpontzen. Haien arabera, toldo on bat, ondo zainduz gero, bizitza guztirako inbertsioa da, beraz, komeni da ondo aukeratzea. Adierazi dute, arrakasta handia izaten ari direla elementu mekanikoak ezkutuatu geratzen zaizkien babesak.



etxe.teknik

PERTSIANAK • TOLDOAK • ESTOREAK

Araba kalea, 7 • 658 71 37 16 • 943-90 51 15
www.etxeteknik.es • etxe.teknik@gmail.com

ZARAUTZ

sukaldeak



Tratu pertsonalizatua
Sukaldeak neurritan
Etxetresna elektrikoak

Bisita gaitzazu!

San Francisco, 3 ■ Hegoalde, 41 ■ ZARAUTZ
943-83 52 57 ■ 943-83 49 60

maximus **PENCIL**

estudio decoración



Julio Beobide, 3 · ZUMAIA

699 49 52 56

maximuspencil@gmail.com

Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan





Berritu ezazu etxea, buruko minik gabe

Probatu ez duenak, ezin dezake pentsatu ere egin zein nekeza izan daitekeen etxebizitza bat goitik behera eraberritzea. Aurrena, zer nolako etxebizitza eraiki

nahi dugun erabaki beharko dugu, eta, ondoren, hartarako bitarteko guztiak lortu: arlo bakoitzeko profesionalak bilatu beharko ditugu, materialak hautatu, banan-banan aurrekontuak eskatu, haiek guztiak aztertu eta interesgarrienak onartu, gremioak koordinatu, lanak ikuskatu, eta abar. Ohituta ez dagoen edonorentzat, erotzeko moduko esperientzia izan daiteke, amets-tako etxebizitza amesgaizto bihurtzeraino. Baina, lasai, badago eta modurik hori dena askoz errazago egiteko: eraberritze enpresa baten zerbitzuak kontratatzea. Osasunean ez ezik, denboran eta dirutan ere aurreztu egingo duzu.

Abantailak besterik ez

Zeintzuk dira eraberritze enpresa baten zerbitzuak kontratatzearen abantailak?

Erosotasuna: eraberritze enpresa arduratuko da guzti-guztiz. Aurrena, eraberritu beharreko espazioaren neurriak hartu, eta aukerak aztertuko ditu, banaketa egokiena jasoko duen proposamen bat lantzeko. Gero, profesionalak bilatuko ditu; aurrekontuak banan-banan eskatu, eta aurrekontu osoa prestatuko du; baimenak lortuko ditu; gremioak koordinatu; lanak zuzendu eta ikuskatu; haiek martxa onean doazela bermatu; eta abar. Eta, gainera, ke-

xaren bat izanez gero, badakizu kontuak nori eskatu. Gremio bakoitza bere aldetik kontratatzean, zailagoa da akatsen erantzuleak topatzea, errua elkarri bota ohi dietelako.

Azkartasuna: eraberritze enpresa askok esparru guztietako profesionalen osatutako lan talde propioak dituzte, eta, horri esker, askoz hobeto antolatu ditzakete lanak. Obra batean, aldi berean, hainbat gremio jarri ditzakete lanean, obren iraupena laburtuz. Ohituta daude erlojuaren kontra lan egitera, eta hitzartutako epeak zuzen betetzen dituzte. Gremio bakoitza bere aldetik kontratatzean, askoz zailagoa izaten da haiek koordinatzea.

Aholkularitza teknikoa: eraberritze enpresentzat aritzen direnak espezializatutako profesionalak izaten dira; horrenbestez, gai dira sor dakizkizuten zalantza guztiak argitzeko. Eta, gainera, aholkatu egingo zaituzte: nolako lurra jarri, isolatze sistema onena zein den, ate iraunkorrenak zeintzuk diren, eta abar. Erabakiak hartzeko ezinbesteko lagutza emango dizute.

Aurrezteko kostuetan: profesional bakoitza bere aldetik kontratatzea garestiago irteten da, lan guztiez arduratuko den enpresa bat kontratatzea baino. Eta enpresa horrek lan talde propioa badu, askoz ere hobe.



JUAN ALBERTO GAZTAÑAGA

📍 Iberotarren Enparantza 11-12 • AZPEITIA

☎ 943-15 13 46 • 607 39 05 84

✉ info@gaztanagadekoratzailea.com • 🌐 gaztanagadekoratzailea.com

Kol 316
1987.urtetik

estudio **AB** | Agustín
Berazadi



Proiektuak
Etxebizitzak eta merkataritzako lokalak eraberritzea
Obren zuzendaritza eta koordinazioa
Gremioen talde osoa

Manzisor kalea 6, behea · ZARAUTZ · 943-00 41 64 · 659 98 32 61
aberazadialdabaldetrek@gmail.com

Fotokatalitikoak: etxe barruko airea garbitzeko gai diren margoak

Espazio itxietarako eta aireztapen gutxiko lekuetarako aproposak dira. Argiarekin kontaktuan jartzean, usainak desagerrarazten dituzte eta giroa garbitzen dute.

Margoak apaingarri hutsak baino askoz gehiago dira. Etxeari eman nahi diogun giroaren arabera, paretak kolore batez edo besteaz margotuko ditugu. Baina, ze pintura erabili aukeratzeko orduan, koloreaz gain, badira kontuan izan behar genituzkeen beste gauza batzuk ere. Geure buruari egin behar geniokeen galderetako bat da, pintura horrek, apaintzeaz gain, zer



funtzio betetzea nahiko genukeen. Badira zikinkeria paretara itsastea galarrastzen duten pinturak, eguzki izpietatik babes gaitzaketenak, irazgaitzak, beroa pasatzea moteldu eta suteak ekidin ditzaketenak, 20 minutuan sekatzten direnak... eta baita airea garbitzen dutenak ere. Margo fotokatalitikoak deitzen zaie, eta belaunaldi berrikoak dira.

Pintura argi natural edo artifizialarekin kontaktuan sartzean hasten da fotokatalisi deitzen zaion prozesua. Bistara ikusezinak diren partikula organiko eta mikroorganismoak desegin egiten ditu,

eta, ondorioz, usainak desagerrarazten ditu eta giroa eta airea garbitzen. Aireztapen gutxiko lekuetarako, joan-etorri handiko espazio itxietarako eta aireko partikulekiko oso sentikorrak direnen logeletarako aproposa dela nabarmendu du Sorkunde Urbistondok, Azpeitiko Urbistondo Margoak dendaren arduradunak. Dituen ezaugarriengatik, uste du aukera ezin hobea dela ospitaletarako, haur eskoletarako, zahar etxe-
etarako, tabernetarako edo haurren logeletarako. Margo fotokatalitikoaren artean, Monto etxeko Smart Aire Puro aipatu du Urbistondok.



URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea 35 behea ■ AZPEITIA ■ 943-81 57 81 ■ info@urbistondomargoak.com

Prestatutako margoak:
150.000 kolore baino gehiago momentuan

**Paper margotuetan
eskaintza zabala**

Neurrira egokitutako alfombrak:
binilozkoak, akrilikoak...

BOGAN

sukalde eta armairuak



**interesik gabeko
12 hilabetetako
finantzaketa**

Garmendipe kalea, 7 behea
20730 AZPEITIA
www.bogansukaldeak.com
943-81 17 47



Eskandinaviar garaikidea, etxea janzteko azken joera

Kolore argiak, espazio ireki eta garbiak, material eta ehun naturalak, forma zuzen eta sinpleak dituzten altzariak... Horiek dira Europa iparraldetik kontinente osora zabaldutako estiloaren gakoetako batzuk.

Dekorazioaren munduan, normalean, joerak etortzen diren bezalaxe joaten dira, azkar eta arrazoi jakinik gabe. Gaur boladan dagoenaz, bihar inor ez da akordatzeko, eta kito. Baina badira salbuespenak; estilo eskandinaviarra deritzona, esate baterako. Estilo hori XX. mendearen hasiera aldera sortu zen, izenak berak dioen moduan, eskandinaviar herrialdeetan, alegia, Norvegian, Suedian eta Finlandian. Pixkanaka, Europa iparraldetik hegoalderantz zabaldutako joan da, eta, egun, etxeari ukitu eskandinaviarra ematea azken joera da kontinente osoan. Azpitikoa Ideeform dendan ere estilo horretako altzariak saltzen dituzte.

Baina, zeintzuk dira estilo horren bereizgarriak? Hona hemen **10 gako**:

1. Kolore argiak. Europa iparraldean, neguak luzeak eta gogorak izaten dira, argi natural gutxi. Argi falta horri



aurre egiteko, kolore argiak erabiltzen dituzte paretetan, lurrean eta altzarietan. Etxeari kolorea osagarri txikiekin ematen diote.

2. Natura prov Etxea janzteko, material naturalak erabiltzen dituzte; esate baterako, egurrezko altzariak, urkiz edota pagoz egindakoak. Horrez gain, apaingarrietarako irudiek eta marrazkiek ere natura dute inspirazio iturri eta hari egiten diote erreferentzia.

3. Ehun naturalak. Gehien erabiltzen dituzten ehunak dira: kotoia, lihoa eta artilea. Izan daitezke kolore argikoak, baina baita biziagoak ere, etxeari nortasuna emateko. Joera handia dute erabiltzeko hostoen, loreen eta animalia txoen marrazkiak dituzten ohialak.

4. Irudi geometrikoak. Asko erabiltzen dituzte, batez ere, zuri-beltzak, baina baita beste edozein koloretakoak ere. Irudi geometrikoekin paretaren bat margotu dezakete, baina, normalean, alfonbretan, mantetan, kuxinetan eta ohialezko beste osagarrietan erabiltzen dituzte.

5. Forma sinpleak. Altzariak, oro har, forma zuzen eta garbiak izaten dituzte, kurbadura leunekin konbinaturik. Espazioak gutxi kargatzen dituzte; ez di-

tuzte altzariz betetzen. Etxebizitza garbiak, praktikoak eta funtzionalak lortzea izaten dute helburu.

6. Askotariko materialak. Beste estiloen eraginez, lehen erabiltzen ez zituzten hainbat material orain erabiltzen dituzte, besteak beste, kobrea, letoia eta marmol zuria, baina beti dosi txikietan eta batez ere osagarrietan. Horrela, ukitu modernoagoa ematen diote etxeari.

7. Estiloen nahasketa. Estilo eskandinaviarrari oso ondo datorzkio vintage erako altzariak eta altzari industrialak. Etxeari nortasuna ematen diote.

8. Berrerabilitako materialak. Berezkoa ez duten erabilera ematen diote altzari eta materialei; adibidez: jarri ditzakete maleta batzuk gau-mahai gisa, eskailera bat apalategi bezala edota palet bat oheburukotzat.

9. Paper margotua. Asko erabiltzen dute haurren logelak apaintzeko, ukitu alaiagoa eta dibertigarriagoa emateko.

10. Barruko landareak. Etxeari berde ukitu bat eta bizitasun pixka bat emateko erabiltzen dituzte. Joera handia dute komunetan jartzeko, izatez hotza den gela hori erakargarriago egiteko.

IDEE FORM

zure etxe-idelekin bat egiten dugu



SUKALDEAK
LOGELAK
EGONGELAK
JUBENILAK
OBRAK
ERREFORMAK

Juan XXII, 16 • AZPEITIA • 943-00 53 94 • 627 65 14 59
ideeform@ideeform.com • www.ideeform.com
@ideeformazpeitia • f ideeform



azkuelek

Sukalde, bainugela eta etxeko instalazio
elektrikoen **berrikuntzak**

**ETXEKO
BERRIKUNTZAK**

**INSTALAZIO
ELEKTRIKOAK**

ARGIZTAPENA

TELEKOMUNIKAZIOAK

KONPONKETAK

DEK

ANTENAK

Araba kalea, 41 ZARAUTZ (N



Gure dendan zure etxea janzteko eskaintza zabala



KORAZIOA

(Maxi Eroski ondoan) • **943-13 04 33 - 619 52 35 39** • **azkuelek.com**



 **estudioa**
MIKEL ITULAIN

Barne diseinua

www.estudioa.co

petopetue.
www.petopetue.eus

markarekin elkarlanean
IKUSI, AUKERATU EDO JASO

ILDEFONSO GURRUTXAGA 12, 20730 AZPEITIA - 652777447 -